



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA 24 TEMPORADA
25

otsailak 06-07 febrero

© Kyutai Shim

Bomsori y la Tercera de Brahms

E. Hallik: *Aegis*
E. W. Korngold: *Concierto para violín y orquesta en Re Mayor Op. 35*
J. Brahms: *Sinfonía nº 3 en Fa Mayor Op. 90*

Bomsori, biolina/violín
Kristiina Poska, zuzendaria/directora



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera
Gaztea (<30):
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila
www.bilbaorkestra.eus



Bizkaia

B

Bilbao



Bomsori, biolina/violín

Kristiina Poska, zuzendaria/directora

I

ELIS HALLIK
(1986)

Aegis*

ERICH W. KORNGOLD
(1897 - 1957)

Kontzertua biolin eta orkestrarako Re Maiorrearan Op. 35
Concierto para violín y orquesta en Re Mayor Op. 35

I. Moderato nobile
II. Romance: Andante
Finale: Allegro assai vivace

Bomsori, biolina / violín

II

JOHANNES BRAHMS
(1833 - 1897)

3. sinfonia Fa Maiorrearan Op. 90
Sinfonía nº. 3 en Fa Mayor Op. 90

I. Allegro con brio
II. Andante
III. Poco allegretto
IV. Allegro

*Lehen aldiz BOSen eskutik - Primera vez por la BOS
Iraup. / Dur: 100' (g.g.b./aprox.)



Egitarauaren oharrak

LEKU SEGURUAK

Zeusen kondairak dienez, jainkoa haurtxo bat zenean Amaltea izeneko ahuntz batek bularra eman zion. Animalia hil zenean, Zeusek Hefestori eskatu zion ezkutu boteretsu bat sor zedila eta ahuntzaren larruzalarekin estal zedila. Ezkutu horrek, zeina bular-armadura gisa edo ahuntzaren azala bera koraza gisa erabiliz ere irudikatu baitzen, egida edo aegis izena du. Ateneak ere aitak oparitutako egida eramaten zuen, baina piezari Medusaren burua gehitu zion; izan ere, Perseok jainkosaren laguntzari esker lortu zuen munstro hura garitzea.

Denborak aurrera egin ahala, egida terminoa ezkutu, babes edo defentsa hitzen sinonimo bilakatu zen, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak terminoaren hiru adieretan jasotzen duen bezala. Hitzaren zentzu hori aintzat hartuta, Elis Hallik konpositore estoniarrek Aegis izenburua eman zion bere orkestra-obrari. Budapesten estreinatu zen 2018an, eta Estoniako Errepublikaren 100. urteurrenari eskaini zion. Halliken hitzetan, Aegisek "indarra eta babesa aztertzen ditu, baina baita hauskortasuna ere; gainditu dituen une guztien markak daramatzen ezkutu batek bezalaxe". Izenburua alde batera utzita, obra egilearen jaioterriaren isla ere bada, Rigako golkoan dagoen Kihnu uhartearena, hain zuzen ere:

"Kihnu uhartean hazi nintzen, Itsaso Baltikoko leku txiki baina paregabea. Tradizio aberatsak eta edertasun natural zirrargarria izateagatik da ezaguna. Itsasoak eta zeruak amaierarik gabeko zeruertzean bat egiten duten lurra da, eta lasaitasuna nahiz boterea eskaintzen ditu. Aegisen zati handi bat Kihnun idatzi nuen. Eskaintzen duen lasaitasunak eta naturarekiko lotura sakonak definitzen dute uhartea. Kihnuko giroa funtsezkoa izan zen konposizioaren muinari forma emateko. Niretzat, Aegis ez da musika bakarrik; esperientzia bat da, babesteak eta babestuta sentitzeak zer esan nahi duten hausnartzeko gonbidapen bat". - Elis Hallik.

Halliken musikak izaera uhartetar horretatik, kostaldearen kontra behin eta berriz lehertzen diren olatuetatik, datorren energia boteretsua ernatzen du. Obra atmosferikoa da, ia paisajistikoa, eta hainbat baliabide erabiltzen ditu, hala nola: mi notaren errepikapena, zeina obraren hari nagusia baita, eta azentu errepikakorrak. Baliabide horiek sortzen dute, hain zuzen, jainkoak garaiezin bihurtzen zituen eta babes bila jotzen dugun aura babesle eta naturaz gaindiko hori.

Batzuetan, babesleku hori gutxien espero dugun lekuan agertzen da. Horixe gertatu zitzaion Erich Wolfgang Korngoldi; izan ere, 1935ean Max Reinhardt eszena-zuzendari eta zinema-ekoizlearen eskaintza bat jaso zuen Mendelssohnen Uda-gau bateko ametsa obrako musika Hollywoodeko film baterako egokitzeke. Egindako lanak izan zuen arrakastari esker, kontratu bat sinatu zuen Warner Bros ekoiztetxearekin eta Los Angelesera joan zen bizitzera, Austriaren 1938ko anexionaren ondoren. Gertakari horrek, ziurrenik, bizitza salbatu zion, judu austrohungariarra baitzen. Aukera horri esker, Korngold filmetarako musika sinfonikoaren aitzindari nagusitzat jotzen dugu gaur egun. Bi Oscar jaso zituen Anthony Adverse (1936) eta Errol Flynn protagonista den Robin Hooden Abenturak (1938) film ospetsuaren partiturak idazteagatik.

Haur prodijioa zen, eta ibilbide musikalaria Vienan ekin zion. Amak ez zekien noiz hasi zen Erich txikia pianoa jotzen. Gustav Mahler eta Richard Strauss musikari apartak, berriz, harrিতa gelditu ziren haurrak zuen talentua ikustean. Mahlerren aholkuz, Korngold konposizio-eskolak ematen hasi zen Zemlinskyrekin. Hari esker, nerabezaroan hainbat obra estreinatu zituen, bere garaikideak erabat txundituta utziz. Dena den, Korngoldek funsgabeak ziren salaketak ere jaso zituen, esanez bere ospea garaiko musika-kritikaririk ezagunenetako eta beldurgarrienetako baten semea —Julius Korngolden semea, hain zuzen— izateagatik zetorrela. Bere opera goiztiarrek arrakasta ukazina izan zuten, bereziki Die tote Stadt bikainak (Hiri hila, 1920). Musikak berez hitz egiten zuen.

Notas al programa

LUGARES SEGUROS

Cuenta la leyenda que Zeus, cuando era apenas un bebé, fue amamantado por la cabra Amaltea y que, al morir el animal, el dios pidió a Hefesto que forjara un poderoso escudo y lo recubriera con su piel. Este escudo, que también se representaba como una especie de pectoral o incluso como la propia piel de la cabra sujeta a modo de coraza, lleva el nombre de égida o aegis. También Atenea portaba la égida, que había recibido como regalo de su padre, añadiendo a la pieza la cabeza de Medusa, pues había sido gracias a la ayuda de la diosa que Perseo había conseguido derrotar al monstruo.

Con el tiempo, la palabra égida pasó a ser sinónimo de escudo, protección o defensa, como recoge la Real Academia Española de la lengua en las tres acepciones del término. Y es en este sentido en el que la compositora estonia Elis Hallik utiliza el vocablo como título de su obra orquestal Aegis, estrenada en Budapest en 2018 y dedicada al 100 aniversario de la República de Estonia. En palabras de Hallik, Aegis "explora temas de fuerza y protección, pero también fragilidad - como un escudo que porta las marcas de cada momento que ha superado". Más allá de su título, la obra también es un reflejo del lugar de origen de su autora, la isla de Kihnu, en el Golfo de Riga:

"Crecí en la isla de Kihnu, un lugar pequeño pero único en el Mar Báltico, conocido por sus ricas tradiciones y su impresionante belleza natural. Es una tierra donde el mar y el cielo convergen en un horizonte sin fin, ofreciendo a la vez tranquilidad y poder. Gran parte de Aegis fue escrita en Kihnu, que se define por la calma y la profunda conexión con la naturaleza que ofrece esta isla. La atmósfera de Kihnu jugó un papel clave en dar forma al corazón de la composición. Para mí, Aegis no es solo música - es una experiencia, una invitación a reflexionar sobre lo que significa proteger y ser protegido." - Elis Hallik

Una energía poderosa, procedente de esa naturaleza isleña, de ese mar que insiste en romper contra la costa, brota de la música de Hallik. Una obra atmosférica, casi paisajística, en la que recursos como la repetición de la nota Mi que sirve de hilo conductor y los acentos recurrentes crean ese aura protectora, sobrenatural, que hacía a los dioses invencibles y bajo la cual nos refugiarnos en busca de abrigo.

A veces ese refugio aparece en el lugar más inesperado, como le ocurrió a Erich Wolfgang Korngold al recibir una oferta por parte del director de escena y productor cinematográfico Max Reinhardt para adaptar la música de El sueño de una noche de verano de Mendelssohn para una película de Hollywood en 1935. El éxito del trabajo le permitió firmar un contrato con Warner Bros y trasladar su residencia a Los Ángeles tras la anexión de Austria en 1938, hecho que muy probablemente salvó su vida, siendo judío austro-húngaro. Gracias a esta oportunidad, Korngold es reconocido hoy día como el gran pionero de la música sinfónica para películas, con dos merecidos Oscar por las partituras de El caballero Adverse (1936) y la famosísima Robin de los bosques (1938), protagonizada por Errol Flynn.

Había comenzado su recorrido musical en Viena, siendo un niño prodigio. Su madre ni siquiera recordaba en qué momento el pequeño Erich había comenzado a tocar el piano, mientras que grandes músicos como Gustav Mahler y Richard Strauss se habían mostrado muy sorprendidos ante el talento del niño. Por consejo de Mahler, Korngold empezó a tomar clases de composición con Zemlinsky, y gracias a él pudo estrenar varias obras en su adolescencia, ante el asombro de sus contemporáneos; aunque tampoco faltaron acusaciones (infundadas) de los que opinaban que la fama de Korngold se debía a que era el hijo de uno de los críticos musicales más conocidos y temidos del momento, Julius Korngold. Sus óperas tempranas tuvieron un éxito incontestable, en especial la magnífica Die tote Stadt (La ciudad muerta, 1920). La música hablaba por sí sola.



Hollywooden, Korngoldek bere hizkuntza erromantikoa pantaila handira egokitzen jakin zuen, eta garrantzi bera eman zien soinu-bandei eta opera edo kontzertu-musikari. Kontzertua biolinarako re maiorrean konpositorearen lanik ezagunena da zalantzarik gabe, baita errepertorioan txertatu zen aurrenetakoa ere, biolinistentzat oso erakargarria delako. Korngoldek kontzertua Hungariako biolinista batek, Bronistaw Hubermanek, eskatuta idaztea erabaki zuen. 1937 eta 1939 artean konposatu zuen, eta 1945ean berrikusi. Dena den, azkenean Hubermanek ez estreinatzea erabaki zuen. Jascha Heifetz biolinistak interpretatu zuen lehenengo aldiz 1947ko otsailaren 15ean, Saint Louisen. Vladimir Golschmannek izan zuen St. Louis Symphony Orchestra zuzentzeko ardura.

Korngoldek piezaren hiru mugimenduetan bere lau soinu-bandetako melodiak txertatzea erabaki zuen. Hala, lehen mugimenduaren lehen gaia (Moderato nobile), biolin bakarlariak jotzen duen melodia atsegin eta liriko hori, William Dieterle zuzendariaren Desertuko aurora (1937) filmaren “ilunabarreko eszenan” oinarrituta idatzi zuen. Hemen ere Juárez filmean agertutako musika-zatiak aurki ditzakegu, Dieterleren 1939ko beste film bat. Biolinaren protagonismo nabarmena, zeinak gutxitan uzten baitio lekua orkestrari, eta lehen konpasetan hauteman dezakegun adierazkortasun handia izango dira kontzertu osoaren ezaugarri bereizgarrienak. Korngoldek instrumentuaren potentziala ahalik eta gehien ustiatu nahi izan zuen; hala, bakarlariak denbora asko eman behar du biolinaren nota altuenetan, eta tarte melodiko oso zabaleko melodiak idatzi zituen.

Bigarren mugimenduaren (Romanze) gaiak lehen aipatutako Anthony Adverse filma du abiapuntu. Film horri esker lortu zuen Korngoldek lehen Akademia saria. Giroa Moderatoan baino “gautarragoa” da. Melodia, berriz ere, goi-erregistrokoa da; orkestran lasaitasuna da nagusi, eta harparen eta zelestaren ukitu magikoek apaintzen dute. Birtuosismo ia guztia Allegro assai vivace mugimenduan dago. Mugimenduak nolabaiteko western kutsua du, baina orkestrak behin baino gehiagotan errepikatuko duen gai zoragarriaren oinarria Printzea eta eskalea (1937) filma da. Bakarlariak bere baliabide-sorta guztia erabili behar du, arkuak alde batetik bestera mugituz edo pizzicatoa erabiliz. Dena den, mugimendu honetan ere lirismoak lekua du. Ez da harritzekoa Korngoldek zera adieraztea: “finaleak birtuosismoa eskatzen badu ere, obra, Paganini batentzat baino gehiago, Caruso batentzat idatzita dago”.

Korngolden kasua bezain deigarria izan ez bazen ere, Johannes Brahms ere txikitatik erakutsi zuen konposiziorako trebezia zuela, bereziki ganbera-musikarako. Hala ere, bere Lehen sinfonia 1876an estreinatu zuen, berrogeita hiru urterekin. Dagoeneko konpositore ezaguna zen, eta gainerako musika-esparru ia guztietan esperientzia zuen. Obraren ernatzea luzea eta zaila izan zen. Lehen zirriborroak 1855ean egin bazituen ere, Brahms hogei urte behar izan zituen amaitutzat emateko.

Behin eta berriz eztabaidatu dira une hori atzeratzera eraman zuten arrazoiak. Besteak beste, muturreko perfeccionismoa eta Haydn, Mozart eta, batez ere, Beethovenen —“nire atzetik etengabe entzuten ditut erraldoi horren urratsak”— tradizio sinfonikoaren oinordekotzat jotzeak eragiten zion pisua aipatu dira. Ezin zuen kontua arinkeriak hartu; bereziki Robert Schumann adiskide eta gaztetako babesleak 1853ko Neue Zeitschrift für Musik aldizkariko artikulu ezagun batean egin zizkion goraipamenak kontuan hartuta (Brahms hogei urte besterik ez zituen).

Dena den, lehen sinfoniak izandako arrakastaren ondoren, Brahms beharrezko segurtasuna lortu zuen eta beste hiru sinfonia idatzi zituen oso denbora laburrean. Hirugarren sinfonia fa maiorrean, gaur entzungo duguna, lau hilabete eskasetan konposatu zuen. Brahms 1883ko udan idatzi zuen Wiesbaden, Rhin ibaiaren ertzean dagoen Alemaniako herri batean. Urriaren Viena itzuli zenean (bertara joan zen bizitzera 1862an), sinfonia amaituta eta interpretatzeko prest zegoen. Urte

En Hollywood, Korngold supo adaptar su lenguaje romántico a la gran pantalla, dando la misma importancia a sus bandas sonoras que a las óperas o la música de concierto. El Concierto para violín en Re Mayor es, sin duda, la obra más conocida del compositor y la que antes encontró un hueco en el repertorio, dado su enorme atractivo para los violinistas. Compuesto entre 1937 y 1939 y revisado en 1945, Korngold se decidió a escribir el concierto por petición del violinista húngaro Bronistaw Huberman, quien finalmente decidió no estrenarlo. En su lugar fue Jascha Heifetz el encargado de la primera interpretación, que tuvo lugar el 15 de febrero de 1947 en la ciudad de San Luis, con Vladimir Golschmann dirigiendo a la St. Louis Symphony Orchestra.

En los tres movimientos de la pieza, Korngold decidió integrar melodías de cuatro de sus bandas sonoras. Así, el primer tema del primer movimiento (Moderato nobile), esa voluptuosa y lírica melodía con la que arranca el violín solista, se desarrolla a partir de la “Escena del anochecer” de la película Aurora del desierto (1937), del director William Dieterle. También aquí se cuelean fragmentos musicales de Juárez, otro film de Dieterle de 1939. El evidente protagonismo del violín, que pocas veces cede espacio a la orquesta, y la intensa expresividad que ya se perciben en los primeros compases serán los rasgos definitorios de todo el concierto. Korngold explota al máximo el potencial del instrumento obligando al solista a permanecer durante mucho tiempo en la zona más aguda del mismo y escribiendo melodías con un rango melódico amplísimo.

El tema del segundo movimiento (Romanze) parte de la ya citada El caballero Adverse, que había granjeado a Korngold su primer premio de la Academia. El ambiente es más “nocturno” que en el Moderato, con una melodía de nuevo en el registro agudo que vuela sobre una orquesta en la que predomina la calma, aderezada con los toques mágicos del arpa y la celesta. Prácticamente todo el virtuosismo está concentrado en el Allegro assai vivace, en el que se respira cierto aire de Western, aunque la cita cinematográfica que emplea (un grandioso tema que la orquesta repetirá en varias ocasiones) proviene de la película El Príncipe y el Mendigo (1937). El solista debe desplegar todos sus recursos, haciendo saltar el arco o empleando el pizzicato, aunque incluso aquí queda espacio para el lirismo. No es de extrañar que Korngold expresara que “a pesar de la demanda de virtuosismo del finale” la obra estaba escrita “más para un Caruso que para un Paganini”.

Aunque no de forma tan llamativa como Korngold, Johannes Brahms también mostró aptitudes para la composición desde temprana edad, destacando especialmente en la música de cámara. Sin embargo, no estrenó su Primera Sinfonía hasta 1876, cuando tenía cuarenta y tres años y era ya un compositor establecido, con experiencia en prácticamente todos los demás campos musicales. La gestación de la obra había sido larga y dificultosa; desde los primeros esbozos en 1855, Brahms necesitó veinte años para darla por finalizada.

Mucho se ha hablado de los motivos que llevaron al músico alemán a retrasar tanto este momento, desde su extremo perfeccionismo al peso de considerarse heredero de la tradición sinfónica de Haydn, Mozart y, sobre todo, Beethoven, “ese gigante cuyos pasos siempre escucho a mis espaldas”. Las cosas no debían tomarse a la ligera; especialmente teniendo en cuenta las alabanzas que Robert Schumann, amigo y protector en su juventud, había proclamado hacia él en un conocido artículo de 1853 (cuando Brahms tenía solo veinte años) en la revista Neue Zeitschrift für Musik.

Tras el éxito de la primera, eso sí, Brahms adquirió la seguridad necesaria para abordar otras tres sinfonías cuyos lapsos de creación fueron sorprendentemente cortos en comparación con aquella. En el caso de la Tercera Sinfonía en Fa mayor este periodo fue de apenas cuatro meses. Brahms se dedicó a ella durante el verano de 1883, que pasó en Wiesbaden, una localidad alemana a orillas del Rin. A su regreso a Viena (donde había fijado su residencia en 1862), en octubre, la sinfonia estaba terminada y lista para interpretarse. El estreno llegó



horretako abenduaren 2an estreinatu zen, Hans Richter zuzendariaren eta Vienako Filarmonikaren eskutik. Wagneriar gutxi batzuen txistuak estreinaldia hondatzeko zorian egon ziren, baina azkenean ikus-entzuleen gogo bizia nagusitu zen, konpositoreari erabateko arrakasta emanaz.

“A zer obra! A zer poema!” esan zuen Clara Schumannekin sinfonia alemaniarretan gehien inspiratutako partitura irakurri ondoren. Lehenengo mugimendua, Allegro con brio, baxuak jotako hiru notako motibo batekin hasten da, eta horren gainean akorde bana jotzen dute haizeek. Sarrera laburra da, eta obraren hainbat unetan agertuko da. Hiru nota horiek —fa, la bemol, fa— gutxienez 1854az geroztik (Lau balada op.10 lanetik aurrera) aurki daitezke konpositorearen obran, sinadura gisa. Hainbat egileren arabera, “Frei aber froh” (“libre baina zoriontsu”, FAF notazio anglosaxoian) esaldiaren inzialak dira, bere adiskide Joseph Joachim biolinistaren leloari (“Frei aber einsam” —“libre baina bakarrik”—) barregarri erantzuteko. Brahms ez zuen horri buruz inoiz ezer esan; oro har, bere musikak haren ordeztu egitea nahiago zuen.

Lehenengo gaia, jarraian datorrena, Schumannen Sinfonia renaniarretik hartu zuen, agian omenaldi gisa, oso egokia Rhin ondoan idatzitako obra bat dela aintzat hartuta. Bigarren gaia, kutsu pastoralekoa, klarinete bakarlariak jotzen duen lehen pasarte da. Instrumentu horrek pisu berezia du sinfonia osoan. Hortik aurrera, musikak garapen ikaragarria du eta tonalitate-aldaketa ugari ikaragarri da, harik eta azken kodan fa maiorra berreskuratzen duen arte.

Klarineta bigarren mugimenduko bi gai nagusien protagonista da. Andantean, tonu atsegin eta lasaia da nagusi, eta hirugarren mugimendura arte hedatzen da, mugimendurik ezagunenera. Hariek jotzen duten Poco Allegretto mugimenduaren melodia nagusia hain da ederra eta aparta, ezen historiako gai sinfoniko ospetsuen artean baitago. Azken mugimendua, Finale (Allegro), material berria aurkezten du, eta, aldi berean, aurretik jotako zatiak berreskuratzen ditu, hala nola hiru notako hasierako motiboa, bigarren mugimenduko interludioa eta lehenengo mugimenduko gai nagusia. Dramatismo handieneko mugimendua da, modu minorra nagusitzen baita. Hala eta guztiz ere, Brahms tonalitate-itsaso batean zehar nabigarazten digu berriro, harik eta mugimendua jatorrizko fa maiorreko akorde luze batekin —pianissimo— amaitu arte. Esan beharrekoa esanda dagoenez, ez dago berresteko beharrik.

Yolanda Quincoces

el 2 de diciembre de ese año, de la mano del director Hans Richter y la Filarmónica de Viena. Los abucheos por parte de un pequeño sector de wagnerianos podrían haber dado al traste con la velada, pero el entusiasmo general del público terminó por imponerse, otorgando al compositor un triunfo sin fisuras.

“¡Qué obra! ¡Qué poema!”, afirmaba Clara Schumann tras leer la partitura de la que es, quizá, la más inspirada de las sinfonías del alemán. El primer movimiento, Allegro con brio, comienza con un motivo de tres notas en el bajo sobre las que se construyen sendos acordes en los vientos; una brevísima introducción que reaparecerá en varios momentos de la obra. Estas tres notas, Fa - La bemol - Fa, se pueden rastrear en la obra del compositor al menos desde 1854 (en sus Cuatro baladas op.10), a modo de firma. Según varios autores, se traducirían como las iniciales de la frase “Frei aber froh” (“Libre pero feliz”, FAF en notación anglosajona), una respuesta jocosa al lema de su amigo el violinista Joseph Joachim “Frei aber einsam” (“Libre pero solitario”). Brahms nunca manifestó nada al respecto; en general, prefería que su música hablara por él.

El primer tema, que aparece justo a continuación, está extraído de la Sinfonía Renana de Schumann, quizás a modo de homenaje, especialmente adecuado tratándose de una obra escrita junto al Rin. El segundo tema, de carácter pastoral, es el primer pasaje solista del clarinete, que tiene un peso especial a lo largo de toda la sinfonia. A partir de ahí la música sigue un desarrollo extraordinario que atraviesa numerosos cambios de tonalidad, recuperando el Fa Mayor principal en la coda final.

El clarinete vuelve a ser protagonista en los dos temas principales del segundo movimiento, un Andante en el que predomina un tono amable y sosegado que se extiende hasta el tercer movimiento, el más conocido. La melodía principal de este Poco Allegretto, confiada a las cuerdas, es de tal belleza y genialidad que se ha ganado un espacio entre los temas sinfónicos más famosos de la historia. El Finale (Allegro), presenta nuevo material, a la vez que recupera fragmentos expuestos anteriormente, como el motivo inicial de tres notas, el interludio del segundo movimiento y el tema principal del primero. Es el movimiento de mayor dramatismo, al predominar el modo menor. A pesar de ello, de nuevo Brahms nos hace navegar por un mar de tonalidades, hasta concluir con un largo acorde en el Fa Mayor original, eso sí, en pianissimo. Cuando todo está ya dicho, no hay necesidad de reafirmarse.

Yolanda Quincoces



Bomsori, biolina / violín



2021eko otsailean, Bomsori kontratu bat sinatu zuen Deutsche Grammophonekin. Bere azken grabazioak, Nielsenen biolinerako kontzertua Daniar Orkestra Sinfoniko Nazionalarekin eta Fabio Luisirekin batera, Gramophone 2024 saria irabazi zuen. 2024/25 denboraldian, Filadelfiako Orkestran debutatuko du Fabio Luisirekin, Alemanian eta Asian zehar bira bat egingo du Bamberger Symphonikerrekin, eta Berlingo RSB orkestran eta Deutsche Kammerphilharmonie Bremenen debutatuko du. Concertgebouwera itzuliko da Herbehereetako Irratiko Orkestrarekin eta Ryan Bancroftekin batera, Estoniako Orkestra Nazionalen debutatuko du eta Hong Kongera itzuliko da Paavo Järvirekin. Wigmore Hallen ere debutatuko du.

Aurreko denboraldian, BBC Promsetan jo zuen lehenengo aldiz BBC Filarmonikarekin batera, eta Hollywood Bowlen Los Angelesko Filarmonikarekin batera. Zurichecko Tonhalle orkestrarekin jo zuen Paavo Järviren zuzendaritzapean, eta Radio Frantziako Orkestra Filarmonikoan, Pittsburgheko Sinfonikoan eta Espainiako Orkestra eta Koro Nazionalen debutatu zuen. Residentie Orkestekin jo zuen Concertgebouwen, baita Vienako Sinfonikoarekin ere Vienako Konzerthausean.

Bomsori jaialdi ospetsuetan egon da, hala nola Rheingau Musik Festival jaialdian, Schleswig-Holstein Musik Festival jaialdian eta Verbier Festival jaialdian. 2021etik, Menuhin Ondarearen artista da Gstaadeko Menuhin jaialdian. Zuzendari askorekin lankidetzan aritzeko ohorea izan du, hala nola: Fabio Luisi, Jaap van Zweden, Paavo Järvi, Marin Alsop, Santtu-Matias Rouvali eta Krzysztof Urbański zuzendariekin.

Orkestra nagusiekin jo du, honako hauekin besteak beste: New Yorkeko Filarmonikoa, Vienako Orkestra Sinfonikoa, Los Angelesko Filarmonikoa, Royal Philharmonic Orchestra, Radio Frantziako Orkestra Nazionala eta Zurichecko Tonhalle Orkestra. Bomsori Vienako Musikverein, Amsterdamgo Concertgebouw, Londresko Royal Albert Hall eta New Yorkeko Carnegie Hall aretoetan jo du, besteak beste.

Bomsori hainbat sari jaso ditu, hala nola ARD, Txaikovski, Elisabeth Erregina eta Wieniawski lehiaketetakoak. Seulgo Unibertsitate Nazionalen eta Juilliarden ikasi zuen. 1725eko Guarnerius del Gesù biolin bat jotzen du, Samsung Fundazioak eta Chicagoko Stradivari Society sozietateak lagatutakoak.

En febrero de 2021, Bomsori firmó un contrato con Deutsche Grammophon. Su última grabación del Concierto para violín de Nielsen con la Orquesta Sinfónica Nacional Danesa y Fabio Luisi ganó el Premio Gramophone 2024. En la temporada 2024/25, debutará con la Orquesta de Filadelfia y Fabio Luisi, se embarcará en una gira por Alemania y Asia con la Bamberger Symphoniker, y debutará con la Orquesta RSB de Berlín y la Deutsche Kammerphilharmonie Bremen. Regresará al Concertgebouw con la Orquesta de los Países Bajos y Ryan Bancroft, debutará con la Orquesta Nacional de Estonia y volverá a Hong Kong con Paavo Järvi. También debutará en el Wigmore Hall.

La temporada pasada debutó en los BBC Proms con la Filarmónica de la BBC y en el Hollywood Bowl con la Filarmónica de Los Ángeles. Actuó con la Orquesta de la Tonhalle de Zurich y Paavo Järvi, debutó con la Orquesta Filarmónica de Radio Francia, la Sinfónica de Pittsburgh y la Orquesta y Coro Nacionales de España. También actuó con la Residentie Orkest en el Concertgebouw y con la Sinfónica de Viena en el Konzerthaus de Viena.

Bomsori ha actuado en prestigiosos festivales, como el Rheingau Musik Festival, el Schleswig-Holstein Musik Festival y el Verbier Festival. Desde 2021, es la Artista del Patrimonio de Menuhin en el Festival Menuhin de Gstaad. Ha tenido el honor de colaborar con directores como Fabio Luisi, Jaap van Zweden, Paavo Järvi, Marin Alsop, Santtu-Matias Rouvali y Krzysztof Urbański.

Ha actuado con las principales orquestas, como la Filarmónica de Nueva York, la Orquesta Sinfónica de Viena, la Filarmónica de Los Ángeles, la Royal Philharmonic Orchestra, la Orquesta Nacional de Radio Francia y la Orquesta de la Tonhalle de Zúrich. Bomsori ha actuado en salas como el Musikverein de Viena, el Concertgebouw de Ámsterdam, el Royal Albert Hall de Londres y el Carnegie Hall de Nueva York.

Bomsori ha sido galardonada en concursos como el ARD, el Tchaikovsky, el Reina Elisabeth y el Wieniawski. Estudió en la Universidad Nacional de Seúl y en la Juilliard School. Toca un violín Guarnerius del Gesù de 1725, cedido por la Fundación Samsung y la Stradivari Society de Chicago.



Kristiina Poska, zuzendaria / directora



Kristiina Poska orkestra-zuzendari sarituak konpromiso asko izaten ditu nazioarteko musika-eszenan. Flandriako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titularra izan da 2019/20 denboralditik, Letoniako Orkestra Sinfoniko Nazionaleko zuzendari gonbidatu nagusia izan da 2021/22 denboralditik, eta Orchestre Français des Jeunes orkestrako zuzendari musikala izango da 2025eko udatik aurrera. Koru-zuzendaritza ikasi zuen Tallingo Musika eta Antzerki Akademia Estoniarrean eta orkestra-zuzendaritza Berlingo Hochschule für Musik Hanns Eisler eskolan. 2010ean, Poska finalista izan zen Donatella Flick LSO lehiaketa ospetsuan. 2012ko maiatzean, publikoaren saria irabazi zuen Malko lehiaketa. Ondoren, 2013ko apirilean, Orkestrako Zuzendarien Alemaniako Sari entzutetsua irabazi zuen.

Denboraldi honetako emanaldi garrantzitsuenen artean, hainbat debut nabarmendu behar dira, hala nola: Toronto Symphony Orchestra eta Colorado Symphony Ipar Amerikan, Suediako eta Norvegiako Irratien orkestra sinfonikoak Eskandinavian, eta Orchestre National de Montpellier, Lahti Symphony Orchestra eta Grazer Philharmoniker. Denboraldi honetan, Orchestre National de France eta Estonian National Symphony Orkestrara itzuliko da, eta hainbat bira egingo ditu Flandriako Orkestra Sinfonikoarekin. Hala, Belgikan, Herbehereetan, Frantzia, Alemanian eta Estonian kontzertuak zuzenduko ditu. Orchestre Français des Jeunes orkestrako zuzendari musikal berri gisa, bi bira europar egingo ditu uda amaieran.

Duela gutxi, Minnesota Orkestran, London Philharmonic Orkestran, Rotterdam Philharmonic Orkestran, Espainiako Orkestra Nazionalean eta Tokioko NHK Symphony Orkestran debutatu du. Royal Concertgebouw Orkestrarekin, Oslo Philharmonic Orkestrarekin, Netherlands Philharmonic Orkestrarekin eta Royal Stockholm Philharmonic Orkestrarekin lan egin du. Gainera, Poskak honako orkestra hauekin lan egin du, besteak beste: Hr-Sinfonieorchester, Radio-Symphonieorchester Wien, Gothenburg Symphony, Deutsche Kammerphilharmonie Bremen eta Tonhalle-Orchester Zürich.

Opera-errepertorioari dagokionez, Poskak Dijongo Operan debutatu du denboraldi honetan, eta ekoizpen bikoitz bat zuzenduko du: Bartóken Bizarrudinen gaztelua eta Straussen Metamorphosen, Dominique Pitoiseten zuzendaritzapean. Bere opera-ekoizpen berrien artean honako hauek nabarmendu daitezke: Mozarten Txirula Magikoa Berlingo Staatsoperrean; Così fan tutte Norwegian National Operan eta Royal Danish Theatre; Pucciniren La bohème Opera Ballet Vlaanderenen (Robert Carsenen zuzendaritzapean); Carmen Stuttgarteko Staatsoperarekin eta Die Entführung aus dem Serail Dresdengo Sächsische Staatsoperarekin (Semperoper). Besteak beste, Berlingo Komische Oper, Royal Swedish Opera, English National Opera, Finnish National Opera, Teatro del Maggio Musicale Fiorentino eta Vienako Volksoperarekin lan egin du.

Lehenago, Kristiina Poska Cappella Academicako zuzendari nagusia izan zen 2006tik 2011ra, Komische Oper Berlingo kapellmeistera 2012tik 2016ra, eta Theater Baseleko musika-zuzendaria 2019/20 denboraldian. Gaur egun, Poska Beethovenen ziklo osoa grabatzen ari da Fuga Libera zigiturako, Flandriako Orkestra Sinfonikoarekin batera.

La galardonada directora de orquesta Kristiina Poska está muy solicitada en la escena musical internacional. Ha ocupado el cargo de Directora Titular de la Orquesta Sinfónica de Flandes desde la temporada 2019/20, Principal Directora Invitada de la Orquesta Sinfónica Nacional de Letonia desde 2021/22 y comenzará su mandato como Directora Musical de la Orchestre Français des Jeunes en el verano de 2025. Estudió dirección coral en la Academia Estonia de Música y Teatro de Tallin y dirección orquestal en la Hochschule für Musik Hanns Eisler de Berlín. Poska fue finalista en el renombrado Concurso Donatella Flick LSO en 2010 y en el Concurso Malko en mayo de 2012, donde también ganó el premio del público. Posteriormente, en abril de 2013, ganó el prestigioso Premio Alemán para Directores de Orquesta.

Entre las actuaciones más destacadas de esta temporada figuran varios debuts: con la Toronto Symphony Orchestra y la Colorado Symphony en Norteamérica, las orquestas sinfónicas de la Radio Sueca y la Radio Noruega en Escandinavia, así como la Orchestre National de Montpellier, Lahti Symphony Orchestra y Grazer Philharmoniker. Durante esta temporada regresa a la Orchestre National de France, Estonian National Symphony Orkestr y realiza varias giras con la Orquesta Sinfónica de Flandes, actuando en Bélgica, Países Bajos, Francia, Alemania y Estonia. Como nueva Directora Musical de la Orchestre Français des Jeunes, realizará dos giras europeas a finales de verano.

Recientemente ha debutado con la Minnesota Orchestra, la , London Philharmonic Orchestra, Rotterdam Philharmonic Orchestra, Orquesta Nacional de España y la NHK Symphony Orchestra de Tokio. Ha actuado con la Royal Concertgebouw Orchestra, Oslo Philharmonic Orchestra, Netherlands Philharmonic Orchestra y la Royal Stockholm Philharmonic Orchestra. Además, Poska ha trabajado con orquestas como Hr-Sinfonieorchester, Radio-Symphonieorchester Wien, Gothenburg Symphony, Deutsche Kammerphilharmonie Bremen y Tonhalle-Orchester Zürich, por nombrar algunas.

Dentro del repertorio operístico, Poska debuta esta temporada en la Ópera de Dijon, dirigiendo una producción doble que incluye El castillo de Barba Azul de Bartók y Metamorphosen de Strauss, bajo la dirección de Dominique Pitoiset. Entre sus recientes producciones operísticas figuran su regreso a la Staatsoper de Berlín con una producción de La flauta mágica de Mozart, Così fan tutte en la Norwegian National Opera y Royal Danish Theatre, La bohème de Puccini por Robert Carsen en el Opera Ballet Vlaanderen, Carmen con la Staatsoper de Stuttgart y Die Entführung aus dem Serail con la Sächsische Staatsoper de Dresde (Semperoper). Ha actuado, entre otros, en la Komische Oper de Berlín, la Royal Swedish Opera, la English National Opera, la Finnish National Opera, el Teatro del Maggio Musicale Fiorentino y la Volksoper de Viena.



Anteriormente, Kristiina Poska fue la Directora Principal de Cappella Academica de 2006 a 2011, Kapellmeister en Komische Oper Berlin de 2012 a 2016, y Directora Musical del Theater Basel en la temporada 2019/20. Junto con la Orquesta Sinfónica de Flandes, Poska graba actualmente el ciclo completo de Beethoven para el sello Fuga Libera.



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA **24** TEMPORADA
25

otsailak 13-14 febrero

 Hastapeneko abonua
Abono de Iniciación
 MITOAK
MITOS

Hurrengo kontzertua Próximo concierto


El relato de Ofelia


H. Abrahamsen: *Let me tell you*


G. Mahler: *Sinfonía n° 4 en Sol Mayor*

Lauren Snouffer, sopranoa/soprano

Elena Schwarz, zuzendaria/directora

 Palacio Euskalduna Jauregia

 osteguna | jueves 19:30 h
ostirala | viernes 19:30 h

 Desde 14,42 €-tik aurrera
Gaztea (<30):
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila
www.bilbaoorkestra.eus

